

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Propagandaren akatsak

Sergio Carrasco • AZPEITIA

Azken hilabete honetan CISek egindako inkestean arabera, euskal herritarrok gehien arduratzen gaituen arazoa terrorismoa omen da, arazo ekonomikoak baino gehiago. Gezurra galanta. Denok dakigu terrorismoa amaitzeko lehenengo baldintza gatazka politikoa bukatzea dela. Hortaz, zergatik eman dio horrenbeste jendek bere konfiantza EAJri, alderdi horren jarrerak (pasiboa) euskal gatazkaren inguruan lehengo bera bada? Oso erraza da: EAJrekin Euskal Herriko ekonomia ondo badago, zertarako aldatu? Beraz, CISek argitaratutako datuak alderdi ez-nazionalisten mesederako propaganda direlakoan nago. Baina niri ez didate ziria sartuko.

Martxoaren 31n Garazin, gar eta hazi!

Erik Etxamendi • MITHIRIÑA

Istantean Aberri Eguna izanen dugu Donibane Garazin, hemen Iparraldean. Euskal departamendu baten aurkako Chevenement jaunak dituen oharpenei erantzuteko, ez genukeia erakusten ahal bateratze puntual baten bidez, Hego eta Ipar Euskal Herriak jadanik lotuak direla, jakobinistek nahi ala ez. Ezin dugu ukatzen ahal iparraldeko Hegoaldeari esker ditugula hemen atxikitzen euskara eta euskararen inguruko zutabeak jakintsuz eta diruz! Eginkizun horrek eta jakobinisten afirmazioek bortxatzen gaituzte, beraz, gure geroaren lortzerat Iparraldetik haratxoñot urratsak eginez... ere.

Abk ez balin badu onartu Batasunare-

kilan segitzea, ez du erran nahi ABko ki-deek Hegoaldeko egoeratik eskapi nahi dutela. Nago ni ea ez denetz izaten ahal bateratze bat EAJ, EA, AB, Aralar eta Berdeak (nola ez gomita Noel Mamere?) alderdien artean Donibane Garazin, Lizarra-Garaziren garra ber abiarazteko?

Jakinez Batasuna alderdiak, lehen aldi-kotz, gaitzetsi duela iragan egun batean Angelun gertatua izan den Ramuntxo Camblongen aurkako ekintzaño bat, nonbait ez duguia esperantzaren hazia berriz ereiten ahal Garazin?


Ez da inolaz arazo azalaren kolorea

Esti Bakaikoa Ugarte

Harrigarria da 2002. urtean arrazakeria

egotea, gai askotan aurrerakuntza handiak egon dira, baina kultura ezberdinetako gizakien arteko harremanetan oso atzeratuta gaudela uste dut. Ez dut ulertzen zelan pertsona batzuek azalaren koloreari hainbeste garrantzi ematen dioten, azken batean denok berdinak baika-ra. Haien herrietatik ihes egiten dute bizitza hobe baten bila, eta gehienetan kontrakoa gertatzen dela uste dut. Normalean zailtasunak dituzte lana, etxebizitza eta abar aurkitzeko, eta hori ez zait bidezkoa iruditzen, berdinak gare-lako. Askok ikusi ditugu kalean nahiz telebistan arrazakeriaren aurkako kanpainak, eta kasu handirik egin ez arren, bada garaia haien egoera aldatzeko. Hori horrela izateko bide on bat txikitatirik irakas-kuntzan denak berdinak garela jakin-araztea izango litzateke.

montxo



galdeiozu... ?



JOSE ANGEL AGINAGA

Sagardogileen Elkarte-ko lehendakaria

Txotx garaia kirol munduko ordezkariak ireki dute azken urteetan. Loturarik badago kirolaren eta sagardoaren artean?

Mikel Fernandez (Barakaldo)

Lotura txiki bat badago, baina gehienbat kirolariak tarteka sagardotegietara joaten direlako. Gainontzean ez dago loturarik. Txotx garaia zabaltzeko kirolariak aukeratu izana publizitatea izan da batez ere. Zein pertsona ekarri Astigarrako Sagardozaile Elkarteak aukeratzeko du.

Urtarrilaren 29tik aurrera **Abel Barriola • Pilotaria** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

hirusta



Itziar Madina

Zauri zaharberriak arrapiztu dira

Nazioarteko harremanetan adituek jakinen dute irakurtzen Elie Hobeika Libanoko ministro ohi eta gerla zibilaren aroan israeldarzaileak ziren libanoar milizia katolikoen buruzagi ohiaren hiltzearen zioa. Mementoko pistak hauek dira: adierazpen harrigarriak beharrak zituela Ariel Sharon israeldar lehendakariak, haren aurka Belgikako nazioarteko auzi batean, Belgikako iturriek baieztatu bezala. Preseskiago, Sharonen Sabra eta Shatila palestinar zibilien kanpamenduetan 1982ko irailaren 16tik 18ra bitartean manatu sarraskiez. Elie Hobeikak ukatzen zuen parte hartzea izan zuela gertaera odoltsu horietan. Historia, erlijioa eta herrialde finkoak nahi dituzten erresumen mugak eta geografiak bortizki erabiltzen dituzte Mediterraneo itsaso hegiko lur aberats eta berok, egun batez ospe handikoak izanak; Sidon-Saida Fenizia ohian, Samaria eta Galilea Palestinak eta

Israelek gutzizatzen dituzten ordoki erraldoietan; eta are bortizkiago tratatzen bere jendeak. Beraz, TNT litzatekeen ehun kilo zartagaiak bateriko autoak Elie Hobeika gerlako hiltzailea zatekeena bere luxuzko ibilgailuan zihoala leherrarazi izana, nolabait, gertaeren ondorio naturalean sar daiteke. Baina pistetan, kontuz irakurtzekoa da 1982an Elie Hobeikak Israeli bizkarra eman eta Siriari eskua luzatu nahiago izan zuela diona. Militarren artean, traizioak ez du barkamenik. Eta gure herrian ia mediatizatua izan ez den datua dator ondoren: Libanoko eta Siriako lehen ministroek, Rafik Haririk (sunita, eta Saudi Arabian fortuna izugarria eginkoa) eta Mohamed Mirok, aho batez esan dute Israel baliatzen dela irailaren 11ko atentatuez palestinar herria suntsitzeko. Adituen ondoan estrategaren beharra badago, munduko lur zati urrun hartako gertaeren segida iragartzeko.